

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 539/2021 Erabakia, irailaren 21ekoa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lanpostuen zerrenda aldatzeari, adimeneko desgaitasuna duten langileei buruzkoa

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 74. artikuluan dioenez, administrazio publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa tresnak erabilita egituratu behar dute beren antolamendua.

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak honela dio zioen adierazpenean: «Legeak sistemaren egituraketak oinarri duen muintzat jartzen ditu lanpostu zerrendak, administrazio karrerako funtsezko elementu, lansari sistemaren ardatzik garrantzizkoen eta, batez ere, administrazio egiturak arrazoibidetzeko eragile bilakatuz. Lanpostuak eratzeko erabili behar diren funtsezko irizpideak eta prozedura bideak ezartzen ditu legeak, baina lanpostu zerrenda horiek erakundearen beharren benetako adierazpide izan behar dute beti eta horretan datza horien indarra. Ondorioz, lanpostu zerrenda horiek izaera dinamikoa dute eta horrek administrazio publikoaren helburuak betetzeak eskatzen duen etengabeko egokitze prozesuari jarraitu beharra dakar, beharrak aldatuz baitoaz».

Antolamendu egituren, eskumenen eta lanpostuei esleitutako eginkizunen berezko eboluzioak beharrezko egiten du lanpostu zerrenda era egokian moldatzea eta aldatzea eta, ondorioz, lanpostu bakoitzean jarduteko gaitasunak eta betekizunak ere bai.

Spainiaiko Konstituzioak 9.2 artikuluan eskatzen die botere publikoei baldintza egokiak susta ditzatela gizabanakoen eta taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen, eta ken ditzatela herritar guztiek bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte hartzea eragozten edo zailtzen duten oztopoak. Ildo beretik, Konstituzioaren 49. artikulua ezartzen du botere publikoek desgaitasunen bat duten pertsonak integartzeko politika gauzatu behar dutela, eta bereziki babestu behar dituztela, gainerako herritarren eskubide berberak baliatu ahal izan ditzaten.

Bestalde, apirilaren 12ko 7/2007 Legeak onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak (EPOE), zeinak funtzionario publikoen estatutu araubidearen oinarriak eta lan arloko legeria ezartzen baititu, 59. artikuluan, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea aukera berdintasunaren ikuspegitik bermatze aldera, honako hau ezartzen du desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikoan sartzeari buruz:

«1. Enplegu publikoaren eskaintzetan bete beharreko lanpostuen ehuneko zazpiko kupoa gordeko da gutxienez, desgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten, betiere, hautaketa-prozesuak gainditu, desgaitasuna egiaztatu eta desgaitasun hori bete beharreko zereginekin bateragarri dela erakutsita, horrela, arian-arian, administrazio publiko bakoitzak dituen langile guztien ehuneko bira iritsi arte. Desgaitasuna duten pertsonatzat joko dira azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsitako Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta Haien Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bateginaren 4. artikulua 2 apartatua jasotakoak.

2. Gutxieneko ehuneko zazpi hori erreserbatzeko orduan, eskainitako plazen ehuneko bia, gutxienez, adimen-desgaitasuna egiaztatzen duten pertsonak bete beharko dute eta eskainitako gainerako plazak beste edozein desgaitasun mota egiaztatzen dutenek».

Adimen desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikorako sarbidea izan dezaten sustatu eta bermatzeko, eta ezarritako kupoak lortzen aurrera egiteko, beharrezkoa da kolektibo horri soilik atxikitako lau lanpostu sortzea, lanpostuen zerrenda aldatuz.

Lanpostu horiek sortzeko, kontuan hartu dira desgaitasunen bat duten pertsonen interesak ordezkatzeko dituzten eskualde elkarteek egindako iradokizunak.

Foru egiturako lau lanpostu berrien izena «zerbitzu orokorretako laguntzaile» da (lanpostu kodea: 1489; dotazioak: 001, 002, 003 eta 004).

Lehenengo hiru dotazioak (001, 002 eta 003) lanpostu hauen amortizazioaren kontura sortuko dira: Zerbitzu Orokorretako mandataria (1500.008), Kultura Etxeko mandataria (1496.002) eta Laborategiko langilea (1520.004).

Hiru lanpostu horiek sortzeko ahalmena ematen duen aurrekontu gaitzeari dagokionez, kontuan hartu behar da zer xedatzen duen Lurralde Historikoaren 2021erako Aurrekontua be-tearazteko urtarrilaren 26ko 1/2021 Foru Arauak, Langileen Kudeaketari buruzko 25.3 eta 25.5 artikuluetan:

«3. 2021eko ekitaldian, lanpostuen zerrenda aldatzeko espedienteak honako kasu hauetan besterik ez dira onartuko: ez da gastu gehikuntzarik sortu beharko, edo sortuz gero, kasuan kasuko gehikuntza bestelako lanpostuetarako kredituak murriztuz konpentsatu beharko da eta aurretik Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren aldeko txostena beharko da.

5. Era berean, artikuluko honen 3. paragrafoan jasotzen den muga ez da aplikatuko Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean lau plaza sortzeko: bat, egiturazko lanpostu bat finkatzeko; beste bi, lurralde orekaren eta erronka demografikoaren arloko jarduketari lotutako funtzioak betetzeko; eta laugarrena, adimen desgaitasuna duten langileentzat gordetako langile laguntzaileen zuzkidura bat sortzeko, sei lanpostukoa dena Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoan, egiturazko izaera duten lanpostuak finkatzeko».

Hau da, sortutako laugarren zuzkidura (1489.004) aipatutako aurrekontuei buruzko foru arauak 2021. urte honetarako gaituta sortzen da, lanpostu bat amortizatuz konpentsatzeko beharrik gabe.

Amortizatu beharreko lanpostuen zerrenda I. eranskin gisa sartu da, eta sortu beharreko lanpostuena II. eranskin gisa.

Interesdunei entzunaldiko izapidea egin zaie, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 82. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Arabako Foru Aldundiko ELAko Atal Sindikalak aurkeztutako berraztertze errekurtsoa baiesten duen irailaren 14ko 520/2021 Erabakiaren arabera, indarrrik gabe uzten da uztailaren 27ko 462/2021 Erabakia.

Lanpostuen Zerrenda aldatzeko beste erabaki bat aurkezten da, atxikitako eranskinekin batera, 2021eko irailaren 15ean ordezkariak sindikalarekin negoziatu ondoren.

Alegazioen izapidea bete da eta negoziazioa gauzatu da sindikatuetakoa ordezkariekin, honako arau hauek xedatutakoaren arabera: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, zeinak onesten baitu enplegatutako publikoaren oinarritzako estatutuaren legearen testu bateratua, eta Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, zeinak arautzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua.

Arauzko txostenak ikusita eta horietan oinarrituta, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda aldatzeari, ondoren xedatutakoaren arabera:

- I. eranskinean jasotzen diren lanpostuak amortizatzea.
- II. eranskinean jasotzen diren lanpostuak sortzea.

Bigarrena. Erabaki honek Gobernu Kontseiluak onetsi ondorengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn argitaratzen den eguna gorabehera.

Hirugarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo bestela, berraztertzeke errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakundean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua-rekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 21a

Diputatu nagusia


RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA



I. ERANSKINA
LANPOSTUEN ZERRENDA
LANPOSTUAK KENTZEA

KODEA	IZENA	MOTA	DED.ERREG.				LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK				ORDAINSARIAK			LANTOKI HERRIA
			BZT.	EZORD.	PREST.	JARD.	JARD.	ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA	BERARIAZKO	ORDAINSARIAK		
												ADIM.	TALDEA	

30 Saila ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOA

30.3 Zuzendaritza ZERBITZU OROKORRAK

30.3.03 Zerbitzua LABORATEGI OROKORRA

1520.004 LABORATEGIKO LANGILEA EB B 2 L AFA C 2 222 1 200 14 19.675,65 VITORIA-GASTEIZ

30.3.09 Zerbitzua LANGILE LAGUNTZAILEAK

1500.008 ZERBITZU OROKORRETAKO MANDATARIA EB B L AFA C 2 A P 14 222 2 200 13 16.576,80 VITORIA-GASTEIZ

70 Saila KULTURA ETA KIROLA

70.1 Zuzendaritza KULTURA

70.1.04 Zerbitzua KULTURA ETXEA

1486.002 KULTURA ETXEKO BELAKO MANDATARIA EB B 1 L AFA C 1 C 2 222 2 14 18.451,35 VITORIA-GASTEIZ
01/12/1992

Lanpostu Totala: 3

Literalen taula, ALH4A On (27 zk.) argitaratutakoa, 2019ko martxoaren 4an

PAG. - 1

KODEA	IZENA	MOTA	DEDERREG.		BET.	LANTOKI/ERREGLA		LANPOSTUAN JARDUTEKO BALDINTZAK				ORDAINSARIAK		LANTOKI HERRIA	
			BZT.	JARD.		PREST.	JARD.	ATXIKI/PENA	ESKALA	IKASKETA	HIZKUNTZA	BERARIAZKO	D.O		BERARIAZKO
			JARD.	JARD.		JARD.	JARD.	ADM.	TALDEA	APIESKALA	TITULUAK	ESKAKIZUNA	EZAGUPENAK		MAILA
II. ERANSKINA															
LANPOSTUEN ZERRENDA															
LANPOSTUAK SORTZEA															
30 Saila ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOA															
30.3 Zuzendaritza ZERBITZU OKORRAK															
30.3.09 Zerbitzua LANGILE LAGUNTZAILEAK															
1489.001	ZERBITZU OKORRETAKO LAGUNTZAILEA	EB	B	L	L	AFA	LT	14	1	11	11.520	VITORIA-GASTEIZ			
1489.002	ZERBITZU OKORRETAKO LAGUNTZAILEA	EB	B	L	L	AFA	LT	14	1	11	11.520	VITORIA-GASTEIZ			
70 Saila KULTURA ETA KIROLA															
70.1 Zuzendaritza KULTURA															
70.1.01 Zerbitzua AGIRITEGIAK															
1489.003	ZERBITZU OKORRETAKO LAGUNTZAILEA	EB	B	L	L	AFA	LT	14	1	11	11.520	VITORIA-GASTEIZ			
70.1.04 Zerbitzua KULTURA ETXEA															
1489.004	ZERBITZU OKORRETAKO LAGUNTZAILEA	EB	B	L	L	AFA	LT	14	1	11	11.520	VITORIA-GASTEIZ			
												Lanpostu Totala:	4		
<i>Literalen taula, ALHAOn (27 zk.) argitaratutakoa, 2019ko martxoaren 4an</i>														ORR.- 1	